

Julen Goikoetxea Iturrioz

E maila • 3 saria

Nire izena Julen Goikoetxea da. 11 urte ditut eta Beasainen bizi naiz. La Sallen, LH ko 6. mailan ikasten dut. Anai biki bat dut. Kirola oso gustoko dut. Pelotan eta futboleant aritzen naiz eta Beasaingo taldeetan jolasten dut. Atletismoa ere oso gogoko dut eta hainbat lasterketetan parte hartu izan dut. Lagunekin egotea ere oso gustoko dut, ondo pasatzen baitut.



KITOREN AMETSA

Bazen behin Kito izeneko mutil bat Burundin bizi zena. Irakurtzen eta idazten ikasi nahi zuen, baina arazo bat zuen. Burundi munduko herrialderik txiroenetako bat zen eta ez zegoen eskolarik. Kitoren gurasoek ere, ez zekiten irakurtzen ez idazten, baina ez zuten ikasteko interesik agertzen.

Egun batean Kitok zera galdetu zion amari:

- Ama irakurtzen eta idazten ikasi nahi dut.

Amak han inguruan ez zegoela eskolarik esan zion. Kito haserretu egin zen eta promesa bat egin zion bere buruari, nonbaitera joango zela ikastera eta Burundin eskola bat egingo zuela.

Lau urte pasa ziren eta berdina pentsatzen jarraitzen zuen. Hamazazpi urte bete zituenean, amari ezer esan gabe kamioi batean ezkutatu zen eta horrela Mugara izeneko herrira iritsi zen. Bertan ere, ez zegoen eskolarik eta egun batzuk pasa zituen bertan.

Goiz batean, itsasontzi bat ikusi zuen portuan eta pentsatu gabe barrura sartu eta izkutatu egin zen. Ordu batzuk pasa ondoren, bapatean pauso batzuk entzun zituen. Itsasontzi sotoan zegoen eta langile bat zerbaiten bila joan zen. Kito ezkutaleku baten bila hasi zen, baina ez zuen denborarik izan. Gizonak Kito ikustean korrika batean itsasontziko kapitainaren bila joan zen. Kapitaina begiratzera joan zen eta zera esan zion:

- Ezin zara hemen egon, baina itsasontziko garbiketara lanak egiten badituzu geratu zaitezke.

Kitok eskaintza onartu zuen eta berehala lanean hasi zen. Ordu batzuk geroago, Kito kapitainaren bulegora joan zen nora zihoazten galdetzeko. Kapitainak zera erantzun zion:

- Mpulungura goaz, bertan bukatzen da ibaia.

- Non dago Mpulungu? Galdetu zuen kitok.

- Zambiano kostaldean dago. Erantzun zion.

PROSA

Mpulugura ailegatu zirenean, kapitainak kamioi bat lapurtu zuen Kitori emateko. Gidatzen irakatsi zion eta kapitainak Mozambiquera joateko esan zion, eta bertan beste itsasontzi bat hartzeko.

Kitok kasu egin zion. Aste bat pasa zuen Mozambiquera iristeko, baina pena merezi izan zuen. Iritsi zenean, itsasontzi bat ikusi zuen eta ez zen izkutatu, itsasontzi barrura sartu zen eta kapitaina non zegoen galdetu zuen. Marinel batek eskailera batzuk seinalatu zituen eta bertara joan zen. Zera esan zion:

-Kaixo Kito naiz, norantz doa itsasontzi hau?

-Argentinara goaz, baina zertarako galdetu didazu?

-Tratu bat eskeiniko dizudalako, zuretzat egingo dut lan baina zeuk Argentinara eramango didazu. Kapitainak tratua onartu zuen eta lanean hasi zen. Kito oso pozik zegoen, ez zekien non zegoen Argentina baina bazekien eskolak egongo zirela. Hilabete bat pasa zuen egunak kontatzen eta azkenean Argentinara iritsi zen Montevideora, hain zuzen ere. Kapitainak Buenos Airesera joateko esan zion bi ordu oinez. Eta kasu egin zion. Buenos Airesera iritsi zenean eskola baten bila hasi zen. Halako batean eraikuntza bat topatu zuen, eskola bat zirudien.

Atean zegoen ume bati zera galdetu zion.:

- Eskola bat al da?

Umeak umezurztegi bat zela erantzun zion eta barrura sartu zen. Bertan gizon batek nor zen galdetu zion eta berak iritsi berria zela esan zion eta bere berri eman zion. Gizonak barrura sartzeko esan zion eta literak zeuden leku batera eraman zuen. Gizonak bertan geratu zitekeela esan zion. Hurrengo egunean gizona logelara sartu zen eta eskolara joateko ordua zela esan zion. Kito pozik jarri zen. Bere ametsa betetzen hasi zen eta bi urtez egon zen bertan.

Hemeretzi urte bete zituenean joateko ordua zela pentsatu zuen. Irakurtzen eta idazten ikasi zuen eta lan baten bila hasi zen. Kaleak garbitzen hasi zen lanean, baina egun batean langile baten bila ari zirela ikusi zuen empresa batean eta elkarrizketa egitera joan zen. Hartu egin zuten eta pixkanaka- pixkanaka postuak igotzen hasi zen eta empresan lan garrantzitsu bat lortu zuen.

Bere familia eta bere betiko ametsa buruan zuen. Burundin eskola eraikitzeke prestatzen hasi zen. Hamar langile, arkitekto bat eta beharrezko materialak hartu eta hegazkinean bere jaioterrirantz abiatu ziren bere ametsa betetzera.

Eskola eraikitzen hasi ziren. Udako egun berotsuak ziren eta lan gogorra izaten ari zen.

Hilabete ondoren bukatu zuten. Kito irakasleen bila hasi zen eta kostata baina zazpi lortu zituen. Iraila iritsi zenean, dena prest zegoen eta eskolak ateak zabaldu zituen. Burundi inguruko 30 ume hasi ziren bertan ikasten. Bai ikasleak bai haien familiak poz-pez zeuden eskolaren sorrerarekin. Kitori esker, bailarako umeak eskolak jaso ahal izango zituzten eta berarentzat hain garrantzitsua zena lortuko zuten, idazten eta irakurtzen jakitea, hain zuzen ere.

Kitok bere ametsa bete ondoren, Argentinara itzuli zen eta bertan ere, herrialde txiroenetan eskolak eraikitzen hasi zen.